María Novaro. Kultur Extean, 19:30etan. Emakumeen Garaia.

ASTIGARRAGA

- ***Danzon.*** Zuzendaria: María Novaro. Kultur Extean, 19:30etan. Emakumeen Garaia.

BEASAIN

- **Mendiari buruzko diapositiba emanaldia.** Aizkorri mendizale elkartean, 20:00etan.

DONOSTIA

- ***Kimuak.*** Egiako Gazte Lokalean (Karmengo Ama, 60).

IRUÑEA

- **Mendiari buruzko diapositiba emanaldia.** Hizlaria: Rafa Santesteban (EEBB, Andeak, Alpeak, Pirinioak). Cuatrovientos institutuan, 10:00etan.

IRUN

- ***Bideoak:*** *Mosen; No sé, no sé; Caxting; Sara; Camaleones; Bernar.* Kultur Etxean, 19:30etan.

## DANTZA

BILBO

- **Rhin Operako Balleta.** Arriaga antzokian, 20:00etan.

ERMUA

- **Kriskitin taldea.** Armua zineman, 22:15etan.

MIARRITZE

- **Asiré.** Damian Muñoz Danza, Coliseen, 21:00etan.

## BERTSOLARITZA

AIZARNAZABAL

- **Imanol Epelde, Joxe Joaki Aizpurua** eta **Joakin Uranga.** Bertso-afaria Gure Bordan, 20:30etan.

BILBO

- **Iratxe Ibarra, Iñaki Aurrekoetxea, Fredi Paya** eta **Leire Bilbao.** Deustuako Bidarte auzoa etxean, 20:00etan. Gai jartzailea: Xabier Amuriza.
- **Axier Goñi, Edu Gomez, Marta Ortiz, Urtzi Urrutikoetxea** eta **Mikel Galarza.** Kafe Antzokian, 21:30etan. Bizkaioko Bertsolari Txapelketa 2000: Bilbo Eskualdeko 1. kanporaketa.

IZARRA

- **Lierni Altuna, Manex Agirre, Joan Mari Juaristi, Beitto Martinez, Naroa Sasieta** eta **Iker Zaldua.** Frontoian, 20:00etan. Prudentzio Deuna Sariketa: 3. Final-laurdena.

PASAI ANTXO

- **Jon Maia, A.M. Peñagarikano** eta **Jokin Sorozabal.** Bertsoafaria Romeral jatetxean, 22:00etan. Antolatzailea: Arnasa elkartea. Sarrera: 1800 pezeta.

## MUSIKA

**Etzakit, Xebastian Lizaso eta Aitor Mendiluzeren trikibertso saioa • Gaur Bilborock aretoan, 20:30etan**

# *Etzakit: «Bertsoa eta trikitixa jendaurrean uztarturik agertzeko saioa izango da»*



EGUZKARIA

**Etzakit taldeak bi aste barru izango du kalean *Goiz edo noiz* disko berria.**

GAUR arratseko trikibertso saioaren aurretik Etzakit taldeko Aitor Zabaleta baxu jolearekin solas egiteko aukera izan dugu.

■ **Gidoi baten inguruan egingo duzue saioa ala inprobisazioa izango da nagusi?**

Aurreko bi urteetan ere Xebastian Lizasorekin aritzeko parada izan genuen. Bi urteetan, saioa inprobistua izan zen ia erabat, eta oso ongi atera zitzaigun, batez ere iazkoa. Aurten ere hala egingo dugu. Pare bat ordu lehenago bilduko gara, saioaren nondik norakoak finkatzeko, baina ez dugu gidoirik prestatuko.

■ **Zer jaso dezake trikitixak bertsotik eta zer bertsoak trikitixatik?**

Elkarren osagarri direla uste dut. Aspaldidanik, trikitixa eta bertsoa elkarren eskutik joan dira. Sarri erabili baitira bertsoak trikiti doinuei hitzak jartzeko. Askotan, ordea, ezkutuko elkarlana izan da hori. Horregatik, trikitixa eta bertsoa jendaurrean uztarturik agertzeko saioa izango da gaurkoa.

■ **Bestalde, disko berria kaleratzekotan zarete, ezta?**

Halaxe da. Dagoeneko abesti bat irratietan eta entzun liteke aurrerapen gisa. *Goiz edo noiz* izango du izenburutzat gure bigarren lan horrek, eta gehienera ere pare bat aste barru izango da merkatuan.

■ **Zein berezitasun izango ditu disko berriak?**

*Goiz edo noiz*-en gitarrek leku handiagoa izango dute, eta ondorioz, indar gehiagoko lana izango da bigarren hau. Lehenengoak ere (*Etzakit* izenekoak) bazuen bizitasunik, eta bizia da halaber bigarrena ere, baina indar gehixeago izango du. Bestalde, lehenengo diskoko hainbat kantutako hitzak Jon Garmendia *Txuria* bertsolariarenak izan ziren legez, bigarren honetan ere bereak dira kantu gehienetako hitzak.

*Gorka Erostarbe*
DONOSTIA

## HITZALDIA

BARAKALDO

- ***Euskal selekzioen gaineko mahai ingurua.*** Kultur Etxean, 20:00etan. Hizlariak: Endika Guarrotxena (ESAIT), Iñigo Santxo (ESAITeko abokatua), Patxi Xabier Fernandez (Garako kirol saileko kazetaria), Pello Agirreoa (Barakaldo futbol taldeko entrenatzailea), alderdi politikoetako ordezkariak. Barakaldoko AEKren 25. urteurrena.

BERA

- ***Itoizko solidarioak.*** Jamotenean, 19:00etan. Antolatzailea: Espidobaita.

ERANDIO

- ***Timor-Indonesia.*** Hizlaria: Txente Rekondo. Hegoalde kultur elkartean (San Inazio kalea, 3), 19:30etan.

ERRENTERIA

- ***Heterosexualitatea-homosexualitatea. Medios de comunicación.*** Zintzilik irratian, 20:00etan. Zintzilik Irratiaren 15. urtemuga.

MUSKIZ

- ***Osasun hitzaldiak (II): Sudurbelarri-eztarria, gaixotasun ohikoenak eta prebentzioa.*** Hizlariak: Muskizko Osasun Zentroko kideak. Kultur Etxean, 19:30etan.

MUTRIKU

- ***Medicus Mundi Gobernuz Kanpoko Erakundeari buruzko hitzaldia.*** Zabiel kultur etxean, 19:30etan.

ZARAUTZ

- ***Guerra de la Convención.*** Hizlaria: Joseba Goñi. Olerti Etxean, 19:30etan.
- ***Emakumeak gure historian.*** Hizlaria: Alicia Sturtze historialaria. Arrano kabia elkartean, 18:30etan. Antolatzailea: Arrano Kabia elkartea.

## BESTELAKOAK

ATARRABIA

- **Txan Handia.** Magia erakustaldia Konstituzio plazan, 18:00etan.

BERMEO

- ***Connemara gure bihotzetan*** Julen Gabiriaren liburua aurkeztuko dute, Udal Liburutegian, 19:30etan. Gainera, Liburu Azoka izango da gaur Bermeon.

BILBO

- ***Zinea eta afaria.*** *El odio* filma, Iba bideodantza, *The Cowboy and the Frenchman* film laburra, eta *Faith act No 1* totxa. DDTM3 (Merced kaia).

DONOSTIA

- ***Maribil.*** Koldo Amestoy eta Maddi Oihenart. Helduentzako ipuinaldia, Lugaritz kultur etxean, 20:30etan.
- ***EKME (Eiskal Herriko Klimatologia eta Meteorologia Elkartea).*** Aurkezpena, euskaraz. Kutxak Arrasate kalean duen aretoan, 19:00etan. Zati bi izango ditu: lehenengoan, Maite Aristegik eta Pello Zabalak tenporez hitz egingo dute; eta bigarren zatian, berriz, hainbat hedabidetako eguraldi adituek mahaingurua egingo dute.

LASARTE-ORIA

- ***Upeletan Erronka.*** Dantza, bertsoak eta trikitixa uztartzen dituen ikuskizuna. Manuel Lekuona kultur etxean, 20:00etan.

ZARAUTZ

- ***Poteo poetikoa.*** Jose Luis Otamendi, Iñigo Aranbarri, Garikoitz Berasaluze, Kirmen Uribe, Pako Aristi, Urtzi Urrutikoetxea eta Edorta Jimenez. Heriko tabernan hasiko da. Vladimir Brigadak.

## IKASTAROAK

ERRENTERIA

- **Diseinu grafiko ikastaroa euskaraz.** Ibainet euskal gunean, gaurtik aurrera izango da. 943 34 40 59.

GASTEIZ

- **Udalekuak 2000.** Begiraleak behar dira. Ezinbestekoa 18 urte eginak izatea eta begirale ikastaroa egina. Dokumentazioa maiatzaren 4a baino lehen AIF-era eraman behar da (Extremadura kalea 7, behea).

HERNANI

- **Ipuin ikastaroak.** Dobera Euskara Elkarteak antolatuta, martxoa eta apirilan zehar. Xehetasun gehiago: 943-332799.

HONDARRIBIA

- **Lehen sorospenen ikastaroa.** DYAk antolatu du eta apirilaren 3tik maiatzaren 11ra izango da, Bidasoako ordezkaritzan. 943 64 00 35 edo 943 46 46 22.

ORDIZIA

- **Internet ikastaroa.** Apirilaren 8 eta 15ean izango da, Euskararen Aholku Batzordeak antolatuta. Izen ematea: 943 16 23 26.